

# 10 ARRAZOI

## ZEZENKETA-ZALEEN AITZAKIAK HANKAZ GORA JARTZEN

Oinatz Elkarte Animalistaren erakusketa  
**Sanagustin Kulturgunea, uztailak 1-15**

*“Hauek dira beraien arrazoiak.  
Guk errealitatea erakutsiko dizugu.”*



Herrialde zibilizatueta zezenketak duela 200 urte inguru debekatu ziren. Salbuespena Espainia, Frantzia, Portugal eta Amerika dira. Estatu espainolean bakarrik, **uda guztietan 70.000 zezen torturatu eta hiltzen dira.**

### **Zezenaren tortura zezenketa burutu aurretik hasten da:**

- Zezen plazara atera baino lehen, zezena ikuilu ilun batean jartzen da; modu horretan plazara ateratzerakoan argiak eta ikusleen oihuek izutu egiten dute. Ikusleek zezenaren izua eta ikara ez dute antzematen, eta zezenaren kemenari egozten diote portaera hori.
- Toreatzailea babesteko adarrak kamustu egiten zaizkio, nahiz eta debekatuta egon.
- Ahultzeko eta erotzeko, kolpe gogorrak jasotzen ditu barrabiletan eta giltzurrunetan. Beherako bortitzak eragiten zaizkio, sulfato eta laxanteen bidez, animalia hesteak errez.
- Baselina jarri ohi zaio begietan, bere ikusmena gutxitzeko. Era berean, kotoizko bolak sartzen zaizkio sudurzuloetan, okerrago arnas dezan.

Honekin guztiarekin zezena eta toreatzailearen arteko borroka desorekatzen da. Zezen-plazara atera aurretik zezenari egindako tortura horrek zezena erotu, izutu eta ahultzea besterik ez du bilatzen.

### **Zezen-plazan animalia hestearen sufrimendua areagotu egiten da:**

- Zaldian dagoen pikadoreak bere “ongietorria” egiten dio zezenari, muskuluak, nerbioak eta odol-hodiak suntsituz. Odol jario horrek nabarmen ahultzen du animalia.

- Banderillek jarraipena ematen diote odol jarioari. Barneko zauriak egundokoak dira. 3 eta 7 litro artean galdu dezake odola zezenak. Bizkarrezurra hondatuta, burua altxatu ezin duenean urbiltzen da toreatzailea. Orduan egin ditzake pase “artistikoenak”, arriskurik ez du eta.
- Toreatzaileak bere lana “borobiltzen” du 80 zm-ko ezpata zorrotza animaliairen bizkar aldean sartuz. Honek gibela eta biriak txikitzen ditu. Arteria nagusia kaltetzen denean, zezena izugarrizko odolezko okaden artean hiltzen da.
- Belarria eta buztana mozten dizkiotenean oraindik askotan bizirik egoten da zezena.

### **Eta ez da zezena bakarrik tratu txarrak jasotzen dituena.**

Balio komertzialik ez duten zaldia aukeratzen dira, 3 edo 4 zezenketetan gehienez hil egiten direlako. Askotan saihets-hezurak apurtzen zaizkie edo tripak atera. 1925etik babes bat jartzen zaie. Pentsa genezake zaldia babesteko dela, baina benetako arrazoia ikusleek zaldiaren zauriak ez ikustea da. Gainera, irrintzirik ez egiteko (eta ikusleak ez gogaitzeko) ahots-kordak mozten dizkiete.

Ondoren ikusiko dituzunak, zezenketen defendatzaileek gehien erabiltzen dituzten argudioak dira. Askotan entzungo zenituen, baina agian inoiz ez dituzu zalantzan jarri. Agian ez dizute beste aldea erakutsi. Edo ez dizute egia osoa kontatu.

**Hausnarketa egin, zezenaren lekuan jarri eta zure ondorioak ateratzera gonbidatzen zaitugu.**




## NORBERAREN ASKATASUNA, BESTEARENA HASTEN DEN LEKUAN AMAITZEN DA

Gure gozarena beste baten sufrimendu eta heriotzean oinarritzen den momentuan (edozein espezieetako delarik), ez dago justifikazio posiblerik.

**Bizitzeko eskubidea, gozatzeko eskubidearen gainetik dago.**

Bestela, logika jarraituz, pentsa genezake pedofilia, bortxaketak edo eskaleak jipoitzea bezelako beste hainbat ekintza krudel ere onargarriak direla, eta gaizkileek ere eskubidea dutela gustatzen zaiena egiten jarraitzeko.

Askok hala uste ez badute ere, animaliek badituzte eskubideak eta *Animalien Eskubideen Adierazpen Unibertsalean* (1978) jasota daude. Honen arabera, “animaliei ezin zaizkie tratatu txarrak eta krudelak eragin”. Horretaz gain, “animalien agerraldiak eta ikuskizunak, batez ere krudelki tratatuak badira, animalien duintasunarekin bateraezinak dira.”



## TRADIZIOAREN IZENEAN, DENA LIBRE?

Tradizioak, etikoki eta moralki aberasten bagaituzte bakarrik mantendu behar diren ohiturak dira. Biktima errugabe bat bortizki torturatzen duen tradizio krudel bat defendatzea, etikoki onartezina da.

Historian zehar desagertzen joan diren tradizio izugarriak egon dira. Indian, alargunak hildako senarrarekin batera bizirik erretzen ziren; neskak txinatarrei oinak haztea ekiditen zen; Maia eta Aztekek hilketa ritualak ospatzen zituzten.

Bortizkerian oinarritutako tradizioek, jokabide hauek iraunaraztea besterik ez dute egiten. Tradizioek, definitu eta eraikitzen gaituenaren euskarri izan behar dute, baina baita etorkizunean espero dugunarena ere.

**Tradizionala bere izate hutsagatik defendatzea, kritika eskubideari eta eboluzioari uko egitea da,** gure errua eta erantzunkizuna aurreko belaunaldiei leporatuz. Atzera bueltarik ez duten ekintza haiek, historia ez errepikatzeko eredu izan beharko lukete belaunaldi berrientzat.





## TORTURAREN “ARTEA”


Zein da “arte” honen lorpenik handiena? Animalia baten zatiak eskuan hartuta plazari buelta bat ematea?

Artea, sormen eta eraikuntza prozesu bat da; bizitza ematen du, ez kendu. Kultura, gizakia sentikorragoa, azkarragoa eta zibilizatuagoa bihurtzen laguntzen duen guztia da. Benetan kultura maite dutenek, bere eboluzioa nahi dute, garaiari egokitzeko

**“Festa” honek ez gaitu hobegoak egiten; alderantziz, bortizkeria onartu eta besteen sufrimenduaren aurrean bihotzgabe bihurtzen gaitu.** Min eman eta suntsitzen duen basakeria, inoiz ezingo da arte edo kulturatzat hartu.

1980an, UNESCOk (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak) honakoa esan zuen: “Tauromakia, jendaurrean animalia bat torturatu eta hiltzeko arte ankerra eta odoltsua da. Umeak eta heldu sentikorrak traumatizatzen ditu. Gizakia eta animaliaren arteko harremana desnaturalizatzen du. Moralari, heziketari, zientziari eta kulturari mesprezu egiten dio.”

“ZEZENKETARIK GABE,  
ARRAZA DESAGERTUKO DA”



ETA EZ BADA ARRAZA BEREZI BAT?

## ZEZENKETA-ZALEAK... EKOLOGISTAK?


Zezenketako zezena ezin da esan arraza bat denik. Inon ez dago deskripzio zientifikorik. Ez du genetikoki transmititzen den ezaugarriarik. Zezenen Ikuskizunetarako Araudiak berak ere ez ditu deskribatzen. Ustezko agresibitate horrek, ez du belaunaldi batetik bestera irauten. Aita suharretatik (bravo) ez dira seme suharrak jaiotzen.

Zezena animalia belarjalea da eta berez ez da erasotzailea. Artifizialki manipulatu eta zirikatzen da toreatzaileari modu oldarkorrean erantzuteko. Zezen suharra gizakiak hazi eta moldatu du helburu horretarako. Urteetan, abeltzainek zezenen portaera naturala aukeratu eta aldatzeko lana egin dute.

Edozein animaliak bizirauteko egingo lukeen bezala, zezena lehenengo ihes egin eta borroka ekiditzen saiatuko da. Askotan ikusten da zezenketa eta entzierroetan. Zirikatuta, zaurituta eta ihesbiderik gabe dagoenean bakarrik garatuko du defentsa eta eraso portaera.

**Bidezkoa al da animalia bati bizitza ematea gero minez eta ankerkeriaz betetako ekitaldi batean kentzeko?** Hori al da ustezko arraza baten bizirautea lortzeko modua?





## LUXUZKO BIZITZA?

Nahiko zenuke zuretzat 5 urtetako bizitza paregabea... heriotza izugarri baten truke?

Zezenketa-zaleen esanetan, hil aurretik lau edo bost urtetan zezena ederki bizi da. Eta bukaeran bakarrik sufritzen du pixka bat, hamabost minutuz baino ez.


Errealitatean, jaio eta aste gutxira, amarengandik banatzen dute. Sutan berotutako burdinekin, ganadutegiko ikurra eta zenbaki bat markatzen zaie gorputzean. Ondo markatua gelditzeko, gutxienez lau aldiz erretzen zaie! Ez dago anestesia edo lasaigarririk hilabete gutxi dituen txahaltxoarentzat. Erredurak hirugarren graduak dira, bestela ez litzateke urrutira ikusiko. Honela hasten da zezenaren “luxuzko bizitza”.

Zezena hazten doan einean, abeltzainek bortizkeriazko saioretara behartzen dute (tientak). Pikadoreak, zezenketetakoa baino txikiagoa den ezten bat erabiltzen du. Horrela, animaliak minaren aurrean daukan erantzuna, eraso eta erresistentzia neurtzen dute.

**Zezenaren bizitza ez da saldu nahi diguten patxada eta zoriontasunaren irudi idilikoa.**



**“ZEZENA ETA GIZAKIAREN  
ARTEKO BORROKA PAREKATUA DA”**



24 ORDUZ KAJOI BATEAN UTZI, ILUNPETAN.  
ARPOIA BIZKARREAN SARTU,  
PLAZARA AZTORATUTA ATERATZEKO

**BORROKA PAREKATUA ALA  
IRUZUR KRUELA?**

## **IRUZURRA HONDARRETAN**

Zezenketa batean, ez dago orekarik. Ez da berdintasunezko borroka. Horrela balitz, hildako toreatzaile eta zezen kopurua berdintsua litzateke.

Zezenak ez du babesik; nahi eta adarrak eta indarra eduki, inoiz ezingo die gizakiak plazan jarriko dituen adimen eta baliabideei aurre egin. Toretzaileak trebezia fisikoa dauka, baina gainera burua erabili dezake, zezena engainatzeko trebetasun mentala dauka. Zezenak, eraso egiten diotenen aurrean bere burua defendatu besterik ezin du egin. Baina ez dauka ahalmenik zer den iruzurra eta zeinek engainatzen duen konturatzeko.

**Zezenketa, nekeak eta minak hondatutako animalia baten aurrean jartzen diren gizon harroputzen antzerkia da.**



## EZ BADU SUFRITZEN, ZERTARAKO TORTURATU?

Zezenketa-zaleen esanetan, zezenak mina sentitzean hormona batzuk askatzen ditu eta hauek sufrimenduari aurre egiten laguntzen diote. Are gehiago: eztenkada eta banderillarik gabe, zezenaren sufrimendua handiagoa litzatekeela diote: “mina sentitzean, hormonak askatzen hasten da. Pikadorearen eztenkadaren momentuan sortzen ditu hormona gehien. Orduan sufritzen du gutxien”. (J.C. Illeraren ikerketan)

Egia ote da zezenari torturak ez diola eraginik egiten? Egia ote da estresaren aurrean duen erantzuna paregabea dela? Zergatik zezenak bai eta beste espezie batzuk ez? Ez badu sufritzen, ze helburu du eragiten zaion torturak?

**Zezenak, ugaztun guztiek bezala, nerbio sistema garatua dauka.** Intsektu bat bere gainean pausatzen bada, buztanarekin uxatu egiten du, azalean duen sentsibilitate handia agerian utziz. Nola ez ditu sentituko banderilla, ezten eta ezpatak?

Sufrimendu fisikoaz batera, psikologikoa ere badago. Zezenek klaustrofobia eta beldurra sentitu dezakete. Abereek emozioak sentitzen dituztela ukatzea, ezjakintasuna edo maltzurkeria besterik ezin da izan.



“BESTE ANIMALIA BATZUK  
ERE SUFRITZEN DUTE”

BAINA BERAIEN HERIOTZAREKIN  
EZ DA IKUSKIZUN SADIKOA EGITEN

## ZERGATIK EZ DENAK ERRESPECTATU?

Egia da tortura asko edo gehiago dagoela jateko hazten ditugun animaliekin. Hala ere, animalia bat haztea bere azken patua krudelkeria eta tortura izateko, jendeak hori ikusteko ordaintzea eta gainera txalo eta musika artean ospatzea, gure gizarteak izan dezakeen ekintza anker eta basatienetakoa da.

Animalia guztiek merezi dute bizitzeko eskubidea, eta bizitza hori duintasunez eta tratu txarrrik jaso gabe bizitzea. Animalia batzuk babestu, mimatu eta adiskide moduan aukeratzen ditugun bitartean (txakurrak eta katuak, adibidez), beste batzuen oinarrizko eskubideak ahazteak, moralki ez dauka logikarik.

Izaki bat beste espezie batekoa izateagatik diskriminatzeari *espezismoa* esaten zaio. Arrazismoa edo sexismoaren parekoa da. Espezismoak milaka milioi abereren heriotza eragiten du urtero hainbat arlotan: medikuntzan, elikaduran, jantzigintzan...

**Bizidun guztiekiko etikoki koherenteagoa eta errespetuzkoagoa den bizimodu batera iristea izan behar dugu helburu.** Eta ez alderantziz; animalia batzuk gaizki tratatzen ditugulako, beste batzuen tortura ere justifikatu.





“ZEZENKETAK  
DIRU-ITURRIA DIRA”

URTEAN 564 MILIOI  
KOSTATZEN ZAIZKIGU

## ZUK ERE ORDAINTZEN DITUZU ZEZENKETAK

Urtero, zure zergen bidez, zezenketei laguntzen diezu. Estatuak, autonomia erkidegoek eta udaletxeek, ekintza hauetara diru publikoa bideratzen dute.


Diru kopuru zehatza jakitea ez da erraza. Aurrekontuetan ez da agertuko “tauromakia sustatzeko diru publikoa” izeneko partidarik. Baina modu askotan laguntzen zaio: toreatzaile-eskolei diru-laguntza publikoak emanez, sarrerak erosiz, zezenzale elkarteei lagunduz, museoak eraikiz...

Are gehiago, zezenketak Kultur Intereseko Ondare izendatzen badira, Kultura Ministeriotik ere laguntzak jasoko dituzte eta zezenketei ematen zaien dirua biderkatu egingo da. Krisi ekonomiko latza jasatzen ari garen garaian, ez al da zentzuzkoa ekintza hauetan diru publikoa ez xahutzea?

**Diru-laguntzarik gabe, zezenketak denbora gutxian desagertuko lirateke.**

Lanpostu asko sortzen dituela, turismoa erakartzen duela, jende asko bizi dela honetatik... Arrazoi hau baliozkoa izango balitz, zergatik ez onartu narkotrafikoa, emakumezkoen salerosketa edo gerrateak? Diru-iturri handia dira eta jende asko bizi da horien kontura...





## TORTURARIK GABE, ASKOZ HOBE!

Baieztafen horrek, hasteko, herritar asko gutxiesten ditu. Jende askok lan pila egiten du festetarako ekintzak prestatzen eta hauekiko errespetu falta nabarmena da. Gainera, gaur egun jendeak beste ekintza mota batzuk eskatzen ditu, parte-hartzaileagoak, familian, umeein ere egin daitezkeenak...

Herri guztietako festen oinarria jendea da. **Jendearen dibertitzeko gogoia existitzen den bitartean, beti egongo da festa.** Baita zezenik gabe ere.

Guk ondo pasatzeko, zergatik pasatu behar dute beste batzuk hain gaizki? Guk festak bizitzeko, zergatik beste batzuk hil? Ez al lirateke gure festak politagoak odolik eta heriotzarik gabe?

# **öinatz** elkarte animalista

[www.oinatzanimalista.blogspot.com](http://www.oinatzanimalista.blogspot.com)

[oinatzanimalista@gmail.com](mailto:oinatzanimalista@gmail.com)

*2013ko uztaila*